

0,48 hektarea oihan, bi urte, 102 ikertzaile, 129.494 artropodo

Panamako San Lorenzo oihanean bizi diren artropodoen kontaketa egin dute

Panamako San Lorenzo oihan-erreserbak 6.000 hektarea hartzen ditu. Han aritu dira bi urtez lanean 102 ikertzaile, Panamako Ikerketa Tropikalen Smithsonian Institutuko Yves Basset entomologoak gidatuta. Helburua: lurzorutik zuhaitz puntetaraino, oihanean bizi diren artropodo-espezieak bildu eta zenbatzea. 0,48 hektareako baso-lagina hartu, eta 14 bilketa-protokolo aplikatu dituzte artropodoen azpitalde guztietako aleak sistematikoki harrapatzeko. 6.144 espezieetako 129.494 ale bildu dituzte.

Ondoren, oihan tropikaletako artropodoen dibertsitatea kalkulatzeko ereduarekin gurutzatu dituzte laginketaren datuak. “Sei eredu existitzen dira” kontatu dio Basset-ek Science aldizkariari, aldizkari horretan argitaratu baitituzte ikerketaren emaitzak, “eta denak erabili ditugu iragarpenak egiteko, eta bildutako laginen datuekin gurutzatu ditugu”. Emaitzen arabera, landarediaren dibertsitatea eta artropodoena erlazionatzen dituzten ereduak ikaragarri ondo egiten dute bat artropodoentzat neurtutako biodibertsitatearekin, bai herbiboroenarekin, eta bai herbiboro ez direnenarekin ere. Azterketak iragarpen ereduak balioztatzeke balio izan duela adierazi du Basset-ek.

Hain zuzen ere, eredu horiek baliatuz, ikertzaileek kalkulatu dute Panamako San Lorenzo oihanean 25.000 artropodo-espezie bizi direla. Halaber, haien estimazioen arabera, oihanaren hektarea bakarrean espezie horien % 60 bizi da aldi berean, edozein unetan. Aberastasun ikusgarria. ●



Ikusi argazki-galeria webgunean.

Bi urtez aritu dira ikertzaileak artropodoak biltzen, azpitalde guztietako aleei egokitutako protokoloak erabiliz horretarako. ARG.: © YVES BASSET/IKERKETA TROPIKALEN SMITHSONIAN INSTITUTUA; © JÜRGEN SCHMIDL/ERLANGEN UNIBERTSITATEA.